



Teknologiarik aurreratuenak ditugu

NAFARROAKO GOBERNUAREKIN ITUNDUTAKO ZERBITZUAK

Eguneko Zentroa

Baliabidea 18 eta 65 urte artekoentzat da. Pertsona bakoitzaren beharretara egokitu dauden errehabilitazio-jarduerak eskaintzen ditu, lanerako nahiz aisiarako jarduerekin batera, astelehenetik ostiralera. 31 leku ditu, eta familiei laguntza eta programak eskaintzen dizkie.

Egoitza

9 leku ditu, eta arrazoi hau edo hura dela medio, etxean bizitzeko zailtasunak dituzten 18 eta 65 urte arteko pertsoneri eskaintzen zaie. Larrialdietarako lekuak ere baditu edota familien atsedenerako.



BESTELAKO ZERBITZUAK

Mendekoei Laguntzeko Zentroa

Laguntza erregimen ambulatorioan ematen da, adin mugarik gabe, eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen du. Errehabilitazio tratamenduz gain, familiei laguntza eskaintzen zaie, bai eta lanerako jarduerak ere.

Errehabilitazio Neurologikorako Zentroa

Zerbitzu honek tratamendu espezializatuak eta bakoitzaren neurriera egokituak eskaintzen ditu, bai garuneko lesioa hasten denetik bai gaixotasunaren edozein fasetan. Gure zentroetan edo etxean egiten da.

Zahartze aktiboa

Erasan neurologikoa duten 65 urtetik gorakoentzat da. Fisioterapia eta logopedia arloko jarduerak eskaintzen ditu, bai eta estimulazio kognitiboa ere. Arreta-eredu malguak eta bakoitzaren egoerara egokituak. Autonomia maila mantentzea du xede eta etxean bertan bizitzeko aukera ematea ere bai. Familiekiko esku-hartzea ere eskaintzen da.



Prestakuntza espezializatua eskaintzen dugu

ADACEN

Nafarroako Garuneko Lesioaren Elkarteak (ADACEN) balio erantsi altua duten baliabideak eskaintzen dizkie Garuneko Lesioa duten pertsoneri, haien errehabilitazioa, autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko. Pertsona horien familiei ere egiten die arreta. Hartutako Garun Kaltearen ondorioetan espezializatua dagoen erakunde bakarra da.

ZER DA HARTUTAKO GARUN KALTEA? Hartutako Garun Kaltea garuneko lesio bat da, bat-batean gertatzen dena, gehienbat iktusek edo burezur-garuneko traumatismoek eraginda.



PROGRAMA AURRERATUAK

Gure programa terapeutiko guztiek aurrerapen teknologiko berritzaileak erabiltzen dituzte, errehabilitazioa azkartzeko, eta funtzio fisikoak nahiz neurologikoak errazago berreskuratzeko.

I+G+B arloko unitate bat daukagu, gaitasun eta estrategia berritzaileak garatzen laguntzeko, bai zahartzearen eta kronikotasunaren inguruan, bai eta mendekotasunaren inguruan ere. Horretarako, Estatuko lehen Neurolab ingurunea sortu dugu, onuradunek berrikuntza teknologikoak probatzeko, hobekuntzak ezartze aldera, berrikuntza horiek merkaturatu baino lehen.



Pertsonak benen errehabilitazioaren erdigunean jartzen ditugu



GURE TALDEA

Gure taldekideak oso espezializatuak dira arlo hauetan eta esperientzia handia dute:

- Neuropsikologia
 - Fisioterapia
 - Logopedia
 - Lanerako terapia
 - Gizarte Lana
 - Gizarte eta osasun arloko arreta
 - Gizarte-hezitzaileak
 - Aisiako eta denbora libreko monitoreak
- Boluntario kopuru nabarmen batek laguntzen digu gure aisia jardueretan.



PREBENTZIOA

Hartutako Garun Kaltea prebenitzeko kanpainak egiten ditugu gure kasa nahiz enpresa eta erakundeekin elkarlanean. Materialak argitaratzeaz gain, hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen ditugu ikastetxe, enpresa, elkarte, udaletan, etab.

PRESTAKUNTZA

Prestakuntzarako zentro bat gara, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak akreditatua. Profesionaltasun Ziurtagiriak ematen ditugu. Mendekotasuna duten pertsoneri laguntzeko ikastaro espezializatuak eskaintzen ditugu, hala entitate eta enpresetako profesionalentzat nola familia-zaintzaileentzat.



Zure beharreen
gara hazten
jarraitzeko



LAGUNDU ADACENi

Diru ekarpen bat eginez

Nafarroako Gobernuak aitortu du Mezenasgo Sozialeko araubidearen merezidun garena. Beraz, herritarren eta enpresen diru ekarpenek abantaila fiskalak dituzte.

Gure Elkartea Leialtasun Fundazioaren zigiluarekin dago ziurtatua, gure erakundearen gardentasunaren nahiz jarduera egokien bermagarri.

Gure Elkartearentzat arras garrantzitsua da elkartekide kopuru handia izatea.

Elkartekide izan zaitezke, urtean 10 eurotik aurrera ordainduta.

Gure boluntarioritza programetan parte hartuz

Beren eskuzabaltasunari esker, boluntarioak lagungarriak zaizkigu garuneko lesioa duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko.

Era askotan lagundu dezakezu, zure denbora librearen arabera.

Berezko prestakuntza bat jasoko duzu lan hori egiteko.

Adinez nagusia izan behar da.



ENTIDAD ACREDITADA



KONTAKTUA

Zolinako bidea zb.g.
MUTILOA

Buenaventura Iñiguez, 7 atzealdea
IRUÑA

Melchor Enrico Comediógrafo, 2
TUTERA

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



*Trabajamos para
mejorar la vida de
las personas con
Daño Cerebral y sus
familias*



*Lanean ari gara
Garuneko Kaltea
duten pertsonen
eta haien familien
bizitza hobetzeko*

Tel. 948 17 65 60 - info@adacen.org- www.adacen.org